

IRAGARKIA

159. ALDIZKARIA - 2025eko abuztuaren 11

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA

OLTZA ZENDEA

Deialdia, zerbitzu anitzetako (lorenzaintza) lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko ekainaren 26an erabakita, deialdi bat onetsi da zerbitzu anitzetako (lorenzaintza) lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko Oltza Zendeako Udalean, lan-araubide finkoan.

Honako arau hauek beteko dira hautapen-prozesu honetan: abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina; azaroaren 6ko 113/1985 Foru Dekretua (foru dekretu horren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua), ekainaren 4ko 7/2025 Foru Legea (foru lege horren bidez onetsi ziren langileen arloko aparteko eta premiazko neurri batzuk, behin-behinekotasuna murrizteko Nafarroako administrazio publikoetan); aplikatzekoak diren gainerako arauak, eta jarraian ematen diren oinarriak.

Deialdi honen eta beronen oinarrien aurka interesdunek 11. oinarrian jasotzen diren errekursoak aurkezten ahalko dituzte.

Oltza zendea, 2025eko uztailaren 3an.—Alkatea, José María Cuende Vallejo.

DEIALDIA, ZERBITZU ANITZETAKO PEOIAREN (LOREZAJINTZA) LANPOSTU BAT OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO, LAN-ARAUBIDE FINKOAN

OINARRIAK

1.—Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da zerbitzu anitzetako peoiaren (lorenzaintza) lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzea, lan-araubide finkoan, txanda irekian:

1.2. Lanpostu hutsa Udalaren plantilla organikoan agertzen da, Zerbitzu Anitzetako Alorrari atxikita.

1.3. Hautaprobak gairiditu ondoan, deialdi honetako lanpostuak betetzeko izendatzen den langilea D maila edo taldean sartuko da, eta jasoko ditu uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko

Ordainsariei buruzko Behin-behineko Erregelamenduan eta Oltza Zendeako Udalean aplikatzeko diren gainerako xedapenetan ezarritako lansariak.

1.4. Lanaldi osoko lanpostua izanen da. Lanaldiaren araubidea eta ordutegia zerbitzuaren beharretara egokituko dira, eta organo eskudunek noiznahi aldatzen ahalko dute, zerbitzuaren beharren arabera.

1.5. Lanpostua lortzen duten izangaiak lan-kontratudun finko bilakatuko dira, Oltza Zendeako Udaleko langileendako egungo xedapenetan zehazten diren eskubide eta betebeharrak guztiekin.

1.6. Halaber, deialdi honen bidez, honako zerrenda hauek osatu nahi dira, hautapen-prozesuan lanposturik lortzen ez duten izangaiekin, aldi baterako lan kontratuak egiteko, 9. oinarrian xedatutakoarekin bat:

a) Probak gaindituta ere lanposturik lortu ez duten izangaien zerrenda.

b) Lehen ariketa gainditu duten izangaien zerrenda.

1.7. Izangaiak, hautaprobak gainditu eta deialdi honetako lanpostuetan aritzeko izendatu ondoren, Oltza Zendeako Udalean sartuko dira eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean afiliatuko, eta alta emanen zaie, araubide horretan aurreikusitako babesean.

1.8. Lanpostuari dagozkion eginkizunak deialdiaren kategoriarako egokiak izanen dira, eta kategoria horietan sartuko dira zerbitzu anitzten eta lorezaintzaren arloari dagozkion zereginak, udal honetan 2019ko apirilaren 2an onetsitako lanpostuen deskribapenarekin bat etorriz. Halaber, Alkatetzak nahiz organo delegatuek agintzen dieten bertze edozein zereginetarako zerbitzuak eman beharko dituzte; betiere, beren eskumen, maila eta kategoriaren barrenean.

2.–Baldintzak.

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaiek, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta agiriak aurkezteko epearen barrenean (deialdiaren 7.2 apartatuan adierazia), eta lanpostuaren jabetza hartu arte, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

2.1.1. Izangai guztiek bete beharreko baldintzak.

a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko estaturen batekoa, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzen den estaturen batekoa.

Orobat, parte har dezakete espainiarren ezkontideek eta Europar Batasuneko bertze estatuetakoz ezkontideek edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuetakoz herritarren ezkontideek, zuzenbidez bananduta ez badaude; halaber, parte har dezakete haien ondorengoez eta ezkontidearenez, zuzenbidez bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina gainditua ez izatea.

c) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, titulu hauetako bat izatea: DBHko Graduatuaren titulua, Eskola Graduatuaren titulua, Erdi Mailako Lanbide Heziketakoa edo horien baliokide bat; edo, bertzela, titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina.

Baldin atzerrian lortutako tituluak badira, eduki beharko da egoki den baliozkotzea, edo homologazioa frogatzen duen agiria. Baldintza hori ez zaie aplikatuko beren lanbide kualifikazioaren aitortzea eskuratu duten izangaiei, betiere eskuratu badute lanbide arautuen esparruan, Europar Batasuneko xedapenen babesean.

izangaiek alegatzen badute badituztela eskatutako kategorian aritzea ahalbidetzen dieten ikasketa baliokideak, aipatu beharko dute baliokidetasun hori onartzen duen lege edo erregelamenduzko xedapena, edo, bertzela, aurkeztu beharko dute Hezkuntza Ministerioak emandako ziurtagiria.

d) Bete behar diren eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Ez egotea dagozkion eginkizun publikoak betetzeko desgaiturik edo bazterturik, eta administrazio publikoren bateko zerbitzutik kendua ez izatea.

f) B motako ibilgailuak gidatzeko baimena izatea.

g) Denborak eta baliabideak egokitu daitezela eskatzeko, %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten izangaiek hori frogatu beharko dute, agiri hauetako baten kopiaren bidez:

–Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMERSO) edo autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ziurtagiria.

–Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, prestazio bat jasotzeko eskubidea onartzen diona hauetakoren bat izateagatik: ezintasun iraunkor osoa, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia.

Desgaitasuna duten izangaiek eskatzen ahalko dute epeak eta moduak egokitzeko, ariketak egiteko, hala behar izanez gero. Kasu horietan, hala jakinarazi beharko dute eskabidean, eta bertze orrialde batean adierazi beharko dute zer nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten.

2.2. Baldintza horiek deialdiaren 7.2 apartatuan ezarritako epean eta moduan frogatu beharko ditu izendatua izateko proposatzen diren izangaiek, salbu eta, 3. oinarrian ezarritakoari jarraikiz, eskabidearekin batera aurkeztu behar direnak.

3.–Eskabideak.

3.1. 20 egun naturaleko epea izanen da deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.2. Eskabideak telematikoki aurkeztu behar dira nahitaez, Oltza Zendeako Udalaren erregistro orokor elektronikoaren bidez (<https://ayuntamientoolza.sedelectronica.es/>). Aukeran, NAN elektronikoa, ziurtagiri elektronikoa edo CI@ve erabil daitezke.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea), "administrazioek haiekin harremana nahitaez bitarteko elektronikoz izan beharra ezarri ahal izanen dute zenbait prozeduratarako eta pertsona fisikoen multzo batzuekiko, haien gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bertzelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikotarako irispidea eta eskuragarritasuna badutela".

Halaber, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 19/2024 Foru Legearen 27. artikuluan (Nafarroako Administrazio Publikoek deitutako hautapen-prozesuei buruzko xedapenak), hau ematen da aditzera: "Nafarroako administrazio publikoei ahalmena ematen zaie Administrazioan sartzeko edo bertako lanpostuak betetzeko hautapen-prozesuen deialdietako eskabideak eta gainerako dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkez daitezela eskatzeko".

3.3. Eskabideak lotuko zaizkio deialdi honetan argitaratutako ereduari (I. eranskina), eta haietan izangaiek adierazi beharko dute baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko jarritako epea amaitzen den egunean.

Ofiziosz edo interesdunak eskaturik zuzentzen ahalko dira eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitezkoak, noiznahi.

3.4. Eskabideari erantsi beharreko dokumentazioa.

Eskabideari behar bezala bete eta honako agiri hauek erantsi behar zaizkio:

a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia.

b) 2.1. oinarriko c) apartatuan eskatzen den titulazio akademikoaren jatorrizkoa edo fotokopia.

c) B gidabaimenaren edo baliokidearen kopia sinplea.

d) Seigarren oinarrian ezarri diren merezimenduak –lehiaketaldian baloratuko direnak– frogatzen dituzten agiriak.

e) Azterketarako eskubideen tasa ES70 2100 5174 8702 0002 5931 (CAIXA) kontuan ordaindu izanaren frogagiria edo tasa ordaintzetik salbuetsita egotearen frogagiria.

10,00 euro ordainduko dira.

Honako hauek tasa ordaintzetik salbuetsita daude:

a) %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa aitortuta duten pertsonak.

b) Deialdia argitaratzen den egunerako, lan eskatzaile gisa hilabete bat edo gehiago inskribaturik daramatenak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izanen da inskribaturik egon diren bitartean eskainitako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikatutako kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako diru-sarrerarik ez izatea, hilabetero.

Lan-eskatzailea dela frogatzeko, behar den enplegu bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko da. Bertan, lan-eskatzaile gisa inskribatu zeneko data agertuko da, eta, orobat, adieraziko da inskribaturik egon den bitartean ez diola uko egin inolako lan egokiri, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo moldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Interesdunaren adierazpen bidez frogatuko da ez duela lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako diru-sarrerarik hilean. Udaleko Informazio Bulegoan jaso beharko da adierazpenaren eredua.

Azterketa egiteko eskubideen tasa ordaintzen ez bada edo, bertzela, hura ordaintzetik salbuetsita egotearen frogagiria aurkezten ez bada, izangaia baztertu egingen da.

Azterketa eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea aurkeztu beharra behar den epean eta moduan.

Ez da azterketa eskubideen itzulketarik izanen baldin izangaia baztertzen bada interesdunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik; erraterako, baldintzak ez betetzeagatik edo deialdian eskatutako agiriak ez aurkezteagatik.

f) 9. oinarrian xedatutakoa aplikatzeko, eta denborak eta baliabideak egokitzea eskatzeko, %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten izangaiek hori frogatu beharko dute, agiri hauetako baten kopiaren bidez:

–IMSERSOk edo autonomia erkidegoan eskumena duen organoak emandako ziurtagiria.

–Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, prestazio bat jasotzeko eskubidea onartzen diona hauetakoren bat edukitzeagatik: ezintasun iraunkor osoa, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia.

Desgaitasuna duten izangaiek eskatzen ahalko dute epeak eta moduak egokitzeko, ariketak egiteko, hala behar izanez gero. Kasu horietan, hala jakinarazi beharko dute eskabidean, eta bertze orrialde batean adierazi beharko dute zer nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten.

4.–Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutik, Oltza Zendeako Udaleko alkateak ebazpen bat emanen du, izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta aginduko du argitara dadila Oltza Zendeako Udalaren egoitza elektronikoan (<https://ayuntamientoolza.sedelectronica.es>) eta web-orrian (<https://www.ayuntamientoolza.com/eu/>).

4.2. Behin-behineko zerrenda Oltzako Udalaren egoitza elektronikoan (<https://ayuntamientoolza.sedelectronica.es>) eta web-orrian (<https://www.ayuntamientoolza.com/eu/>) argitaratu eta biharamunetik hasita, izangai baztertuek hamar egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta haiei erantzun ondotik, alkateak ebazpen bat emanen du, izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta aginduko du argitara dadila, Oltza Zendeako Udalaren egoitza elektronikoan (<https://ayuntamientoolza.sedelectronica.es>) eta web-orrian (<https://www.ayuntamientoolza.com/eu/>). Ebazpen horretan bertan zehaztuko da probak non, noiz eta zer ordutan hasiko diren.

4.4. Azterketa eskubideak ez dira itzuliko, baldin izangaiak baztertutik gelditzen badira izangaiei berei egozten ahal zaien arrazoi batengatik.

5.–Kalifikazio-epaimahaia.

5.1. Honako hauek osatuko dute kalifikazio-epaimahaia:

1. Epaimahaiburua: José María Cuende Vallejo, Oltza Zendeako Udaleko alkatea.

Ordezkoa: Félix Luis Otamendi Echauri, Oltza Zendeako Udaleko zinegotzia.

2. Epaimahaikidea: Iker Ariznabarreta Bergareche, Oltza Zendeako Udaleko zerbitzu anitzetako koordinatzailea.

Ordezkoa: Alberto Onieva Onieva, Berriozarko Udaleko lorategien arduraduna (Oltza Zendeako Udalaren langileen ordezkariak izendatua).

3. Epaimahaikidea: Mikel Xabier Redín Martínez, Burlatako Udaleko ureztatze eta zuhaitzien ofiziala.

Ordezkoa: Ivan Manuel García Rodríguez, Oltza Zendeako Udaleko zerbitzu anitzetako (lorenzaintza) enplegatua.

4. Epaimahaikidea: Nerea Martínez Narbaiz, Oltza Zendeako Udaleko zerbitzu anitzetako (albientea) enplegatua (Udaleko langileen ordezkariak izendatuta).

Ordezkoa: Victoria Sangüesa Azcona, Iruñeko Udaleko hiri kontserbazioko laguntzailea.

5. Epaimahaikide-idazkaria: Jon Ander Mendinueta Ochotorena, Oltza Zendeako Udaleko idazkaria.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

Epaimahaia modu baliodunean eratzeko eta kide anitzeko organoa jarduteko, beharrezkoa izanen da bertan izatea hura osatzen duten kideen gehiengo osoa.

5.3. Kalifikazio epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, baldin suertatzen badira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako ezarriak dauden arrazoiak.

Halaber, izangaiek epaimahaiko kideak errekusatzen ahalko dituzte, baldin eta aipatutako egoerak gertatzen badira, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluen arabera (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legea).

Abstenitzeko edo errekusatzeko ezarritako arrazoiak direla medio epaimahaiaren konposizioa aldatzen bada, izangai onartuen eta baztertuen zerrendekin batera emanen da horren berri.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduari buruz sortzen diren arazo guztiak.

5.5. Kalifikazio epaimahaiak aholkulari espezialisten laguntza eskatzen ahal du proba baterako edo guztietarako. Aholkulari horien laguntza norberaren espezialitate teknikora mugatuko da.

6.–Oposizio-lehiaketaren nondik norakoak.

Oposizio-lehiaketak bi fase izanen ditu. Hautapen-prozesua malgutze aldera, deialdi honetako faseak hurrenkera honetan egingen dira: lehendabizi, oposizioaldia, eta hura bukatuta, lehiaketaldia. Oposizioaldiko ariketa gainditu duten izangaien merezimenduak baino ez dira baloratuko.

6.1. Oposizioaldia.

Oposizioa 2025eko urritik aurrera hasiko da, betiere deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabete iraganik. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean berean ezarriko da lehen ariketa non, noiz eta zer ordutan egingen den.

Hautapenaldiko proba bakoitzaren kalifikazioa emandakoan, epaimahaiak behin-behineko kalifikazioak argitaratuko ditu Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian, eta bortz eguneko epea emanen du izangaiek alegazioak aurkezteko. Epaimahaiak alegazioak ebatzi ondoren, behin betiko kalifikazioak onetsiko dira eta horiek ere iragarki-taulan eta Udalaren web-orrian argitaratuko; behar denean, proba gainditu duten izangaiak eta baztertuak adieraziko dira –behar dena–, baita hurrengo proba egiteko tokia, eguna eta ordua ere, gutxienez ere berrogeita zortzi ordu lehenago.

Hautapen-prozesua bi probaren bidez egingen da. Bata teorikoa izanen da, eta bertzea praktikoa, eta biak ere baztergarriak izanen dira. Proba hauen puntuazioa, gehienez, 70 puntukoa izanen da.

6.1.1. Lehenengo proba. Proba teorikoa izanen da, deialdi honen II. eranskineko gai zerrendako gaiak buruzko test motako galdera sorta bat erantzun beharko da, idatziz. Galdera bakoitzak hiru edo lau erantzun izanen ditu aukeran, baina bat bakarra izanen da zuzena. Erantzun oker bakoitzak penalizazioa ekarriko du, hain zuzen ere, erantzun zuzenaren balioaren herena. Probari gehienez 40 puntuko balioa emanen zaio. Bazterturik geldituko dira gutxienez ere 25 puntu lortzen ez dituzten izangaiak. Proba hau egiteko ezin da

inolako testurik kontsultatu, ez eta kalkulagailurik edo bertzelako materialik erabili ere, ez bada bolaluma urdina edo beltza.

6.1.2. Proba praktikoa: proba praktiko bat edo batzuk eginen dira, lanpostuaren eginkizunekin lotura dutenak; epaimahaiak zehaztuko ditu. Probari gehienez 30 puntuko balioa emanen zaio. Bazterturik geldituko dira proban 15 puntu, gutxienez, lortzen ez duten izangaia; hau da, gehieneko puntuazioaren erdia lortzen ez dutenak.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra eginen da, eta izangaiek aldean izan beharko dute nortasun agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena. Oposiziotik baztertuko dira azterketara agertzen ez direnak edo nortasuna frogatzen ez dutenak arestian aipatutako agirietako baten bidez.

Hautaprobak egiteko, behar diren eta posible diren egokitzapenak eginen dira desgaitasun aitorturen bat dutenendako, denbora eta baliabideen aldetik, eskabidean azaldutakoaren arabera.

6.2. Lehiaketaldia.

Izangaiek aurkezturiko merezimenduak baloratuko ditu epaimahaiak, ondotik heldu den baremoaren arabera baloratu ere. Merezimendu guztiak agiri bidez frogatu behar dituzte izangaiek, hautaprobetan parte hartzeko eskabidea aurkeztean, jatorrizko agirien bidez edo kopia soilen bidez. Hala izan ezean, ez dira kontuan hartuko.

Izangaiek alegatu dituzten merezimenduak honako baremo honen arabera kalifikatuko eta puntuatuko dira:

6.2.a) Egindako zerbitzuak (gehienez: 27,90 puntu).

- Administrazio publikoan zerbitzu anitzetan egindako zerbitzuak: 1,4 puntu urte bakoitzeko.
- Administrazio publikoan lorezain gisa egindako zerbitzuak: 1,4 puntu urte bakoitzeko.
- Administrazio publikoan zerbitzu anitzeko-lorezaintzan egindako zerbitzuak: 1,4 puntu urte bakoitzeko.

Oharrak:

–Honako hauek hartzen dira administrazio publikotzat: Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia erkidegoetako administrazioak, Toki Administrazioa osatzen duten erakundeak, eta aurrekoei loturik edo haien mende dauden erakunde publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak.

–Tokiko merkataritza-sozietateetan edo araudian aurreikusitako zeharkako kudeaketa-moduetan emandako zerbitzuek ez dute puntuaziorik izanen deialdi honetan.

–Aldi berean egindako zerbitzuak ez dira bi aldiz baloratuko.

–Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaio (hilabete oso bat izanen da kontuan hartuko den gutxieneko denbora).

–Hori frogatuko da egoki den Administrazio Publikoaren ziurtagiriaren bidez; hartan, berariaz agertu beharko da zerbitzu-ematearen iraupen osoa, zenbat egun izan diren zehaztuta. Zerbitzuak lanaldi partzialean ematen diren kasuetan, honako hauek ere adierazi beharko dira: a) edo eguneko, asteko, hilabeteko edo urteko ordu kopurua, eta emandako zerbitzuei dagokien urteko lanaldia; b) edo horiek ohiko lanaldiarekiko duten ehunekoa.

–Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

–Ez dira baloratuko deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko zerbitzuak.

6.2.b) Euskara jakitea, ofizialki egiaztatua (gehienez: 2,10 puntu):

izangaiek alegatu dituzten merezimenduak honako baremo honen arabera kalifikatuko eta puntuatuko dira:

a) Euskarazko B1 mailari dagokion ziurtagiria edo titulua izateagatik, ofizialki egiaztatutako erakundeek emandakoa, jarraikiz Europako Erreferentzia Esparruari: 2,10 puntu.

b) Euskarazko A2 mailari dagokion ziurtagiria edo titulua izateagatik, ofizialki egiaztatutako erakundeek emandakoa, jarraikiz Europako Erreferentzia Esparruari: 1 puntu.

c) Euskarazko A1 mailari dagokion ziurtagiria edo titulua izateagatik, ofizialki egiaztatutako erakundeek emandakoa, jarraikiz Europako Erreferentzia Esparruari: 0,50 puntu.

Titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkeztuz gero, epaimahaiak maila gorena duena baizik ez du baloratuko.

Euskararen jakite maila agiri bidez frogatu ez dutenei, eta eskabidean hala eskatu dutenei, dei eginen zaie proba egin dezaten, B1 hizkuntza maila frogatzeko. Proba hori eginen da oposizioaldiko proba gainditu ondoren, eta gainditzen dituztenek soilik eginen dute, merezimendu horri dagokion puntuazioa emateko aurreko paragrafoko baremoaren arabera.

Euskarazko berariazko probarako deia jaso eta behin betiko zerrendak argitaratu ondoren eta euskara probak hasi baino lehen, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B1 mailari dagokion euskara titulua edo egiaztatutako titulua frogatzen duten izangaiek euskara proba egitetik salbu geldituko dira. Ohartuz gero aurkezten den titulua ez dela maila horietako bakar baten baliokidea, interesdunari jakinaraziko zaio euskarazko berariazko proba egin beharra duela.

Tituluak eta ziurtagiriak baloratuko dira jarraikiz Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailen. Maila horiek jasotzen dira NAPIko zuzendari kudeatzailearen irailaren 13ko 210/2010 Ebazpenean, horren bidez ezarri baitziren euskararen eta Europar Batasuneko hizkuntzen jakite maila frogatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliozkotzeak, jarraikiz Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuari (2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 27koa).

6.2.c) Epaimahaiak noiznahi eska ditzake izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko azalpen eta datu osagarriak.

7.–Agiriak aurkeztea.

7.1. 10 egun balioduneko epea emanen da proposatutako izangaiek, izendatu aurretik, honako agiri hauek aurkez diezazkieten Oltza Zendeako Udalari:

a) Lan arloko Balorazio Klinikaren eta Ikuskatzailatza Medikoaren Atalak egindako txostena (Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zerbitzuko atala), edo, hala badagokio, behar bezala akreditatutako kanpoko erakunde batek egindako txostena, frogatzen duena ez duela eritasunik edo akats fisiko edo psikikorik, eragotziko liokeenik lanpostuaren eginkizunak betetzea.

Izangaiek desgaitasunen bat alegatu badute, gainera, aurkeztu beharko dute desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioten frogagiria, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

b) Zinpeko edo zinezko deklarazio bat, adierazteko pertsona ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dela kendua izan administrazio publikoren baten zerbitzutik.

Izangaiek Espainiako nazionalitatea ez badute, agiri bat aurkeztu beharko dute, adierazteko ez dutela zehapenik edo zigor penalik, eragozten dienik sartzea beren estatuko funtzio publikoan.

c) Zina edo hitzematea, adierazten duena Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela, eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

d) Europar Batasunetik kanpoko herrialderen batekoa bada, bertan bizi eta lan egiteko baimena, legeek ezarritako kasuetan.

e) Izangaia baldin bada Nafarroako bertze administrazio publiko bateko langile finkoa, deialdi hau egin duena ez bertze batekoa, aurrekoaz gain aurkeztu beharko du ziurtagiri bat, frogatzen dituen aurreko administrazioako espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak: sarrera, antzintasuna, maila, egoera administratiboa eta abar.

7.2. Aipatu epearen barnean, eta aski justifikaturik dauden ezinbertzeko kasuetan izan ezik, arestiko agiriak aurkeztu ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, beren eskaeraren faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna galarazi gabe.

7.3. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan, baja beteko da prozesua gainditu duten izangaien zerrendan hurrengo den izangaiarekin, eta horrekin erabiliko da aurreko apartatueta adierazitako prozedura bera.

8.–Izendapena eta jabetza hartzea.

8.1. Izendapena.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondotik, Alkatetzaren ebazpen baten bidez, zerbitzu anitzetako (lorezaintza) langile izendatuko dira oposizioa gainditu duten izangaiak, txandaren eta lortutako azken puntuazioaren hurrenkeraren arabera.

Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.2. Jabetza hartzea.

Izendapen ebazpenean zehazten den egunean jabetu beharko du lanpostuaz izangaiak, aski justifikaturik dauden kasuetan izan ezik..

Ezarritako egunean lanpostua hartzen ez dutenek – ezinbertzeko kasuetan izan ezik– Oltza Zendeako Udalean sartzeko eskubide guztiak galduko dituzte. Hala bada, deialdiaren 7.3 apartatuan ezarritakoari jarraikiko zaio.

Hautaprobak gainditu eta deialdiaren xede den lanposturako izendatua izan ondoren, Udalean sartu eta lan-kontratadun finko bihurtzen den izangaia Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliatuko da eta alta emanen zaio araubide horren babesean, salbu jadanik afiliaturik badaude edo Nafarroako Administrazio Publikoetako Eskubide Pasiboen eta Osasun eta Gizarte Laguntzako bertze araubide batean izena emana bada; orduan, eta izendatu aitzin, babes araubide horretan segitzea aukeratzen ahalko du edo Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean afiliatzea.

Izangai bat lan-kontratadun finko bihurtu eta lanpostuan batere aritu gabe, berak eskatuta, borondatezko eszedentzia ematen bazaio jabetza hartzearen egunetik beretik, data horretan bertze administrazio publiko batean ari delako, lanpostu huts hori ere deialdiaren 7.3 apartatuak agintzen duen moduan beteko da.

Aurreko bi apartatueta aipatutako kasuetan, ez da aldatuko izendapenaren aurretik egindako lanpostu hutsen aukeraketa. Beraz, funtzionario berriei egoera horien ondoriozko lanpostuak esleituko zaizkie.

9.–Aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendak.

9.1. Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamenduaren 42. artikuluari jarraikiz, honako zerrenda hauek sortuko dira, aldi baterako kontrataziorako, hautapen-prozesuan parte hartu ondotik

lanpostua lortu ez duten izangaiekin:

a) Probak gainditu baina lanposturik eskuratu ez duten izangaien zerrenda.

b) Lehenengo ariketan gutxienez 15 puntu lortu dituzten izangaien zerrenda.

9.2. Probak gaindituta ere lanposturik lortu ez dutenen zerrenda eta Oltza Zendeako Udalean kontratatzeko izangaien zerrenda.

Hautapen probako epaimahaiak espedientea igorri ondoren, Oltza Zendeako Udaleko alkate udalburuak ebazpen bat emanen du onesteko lanposturik lortu ez dutenen zerrenda eta lehen ariketa gainditu dutenen zerrenda, hori guztia une bakoitzean indarra duten kudeaketa arauak jarraituz. Zerrenda horiek Oltza Zendeako Udalaren iragarki-taulan emanen dira argitara.

Hauxe izanen da aldi baterako kontratazioen zerrendaren hurrenkera: oposizioa gainditu bai, baina lanposturik lortu ez dutenen kasuan, hautapen-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera; gainerako izangaien kasuan, lehenbiziko ariketan lortutako puntuazioaren arabera. Berdinketarik gertatzen bada, hura ebazteko, aplikatuko dira deialdi honetan kasu horietarako ezarritako irizpideak.

Izangaia aldi baterako kontratatzeko zerrendan sartzeak ez du berekin ekartzen interesdunei onartu izana 2. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituztela, horiek frogatu behar baitira oinarri honetan ezartzen den eran.

Izangaiei deitu eta, kasua bada, haiek kontratatzerakoan, honako hauek beteko dira: abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88.b) artikulua eta hurrengoak (foru dekretu horren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategia), Udalaren indarreko akordioa edo hitzarmena, eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Kontratazioarako deitzen diren izangaiek baizik ez dituzte ekarri behar 2. oinarrian eskatzen den titulazioaren gaineko baldintzak betetzen direlako frogagiriak, kontratua formalizatzerakoan ekarri ere, horretarako aurkeztuz jatorrizko agiriak edo kopia behar bezala konpultsatuta.

Aski justifikatutako ezinbertzeko kasuetan izan ezik, eskatzen zaizkien agiriak aipatu epean aurkeztu ez dituztenek eta eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenek galdu egingen dituzte deialdian parte hartzearen ondoriozko eskubide guztiak, horrek deuseztatzen eragotzi gabe parte hartzeko eskabidea faltsutzeagatik dagokien erantzukizuna, kasua bada.

Zerrenden indarraldia: hurrengo deialdi publikoa egin arte.

9.3. Eskatutako baldintzak bete behar dira sarrera-prozedurarako eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, eta, orobat, prozedura horrek eta kontratazioaldiak iraun bitartean.

9.4. Aldi baterako kontratazioarako deialdiak.

Hautaprobak gainditzeko dituztenak sartuko dira izangaien zerrendetan, lortutako puntuazioaren hurrenkera, aldi baterako betetzeko Udalean hutsik gelditzen diren lanpostuak, edo izan daitezkeen bertze behar batzuei erantzuteko.

Aldi baterako kontratatzeko prozesua arau hauen arabera kudeatuko da:

9.4.1. Izangaien zerrendak onesteko irizpide orokorrak.

9.4.1.1. Izangaiei deialdi egiterakoan, kontuan hartuko da zer dagoen ezarrita desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan, zeina onetsi

baitzen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez.

9.4.2. Dei egiteko sistema.

9.4.2.1. Deiak egiteko arau orokorrak.

Langileak kontratatzeko beharrak betetzeko, izangaiei banakako deiak eginen zaizkie, kasuan kasuko zerrendako izangaien hurrenkeraren arabera, eta kontuan hartuta lanpostuaren eskakizunak.

Errazago aurkitu ahal izateko, izangaiek harremanetarako telefono bat bederen jakinarazi beharko dute. Horrez gain, harremanetarako bertze telefono batzuk edo helbide elektroniko bat eman ditzakete. Informazio hori etengabe eguneratua eduki beharko dute.

Kontratua eskaintzeko deiak izangaiek emandako zenbakietara eginen dira, zerrendako hurrenkerari jarraikiz. Deiaren emaitza jasoko da, hauetako bat adierazita: "interesatzen zaio", "ez zaio interesatzen", "ez du erantzun".

Betiere, azkar eginen dira banakako deiak, kontratazio premiak lehenbailehen bete daitezzen. Bi egunean hiru dei, bederen, eginen dira kontratua eskaintzen zaion izangaiak emandako telefonora.

Lehenbiziko deian ezin bada izangaiarekin harremanetan jarri, SMS bat eta/edo posta elektroniko bat igorriko zaio horren berri emateko.

Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan hurrengo denari deituko zaio, eta horrela jokatuko da harik eta eskaintzen den lanpostua edo lanpostuak bete arte.

Sei hilabeteko epean behin ere aurkitu ez den izangaia "ez deitzeko moduan" agertuko da zerrendan.

Kontratazioa presakoa bada (eta halakoa izanen da lanpostuan 24 orduko epean hasi behar denean) eta, aurreikuspenen arabera, kontratuaren iraupena 3 hilabetetik beherakoa, harekin harremanetan jarrita lanean berehala hastea onartzen duen lehenbiziko izangaiari eskainiko zaio, gorago ezarritakoa bete behar izan gabe.

9.4.2.2. Administrazio araubideko kontratazioa.

Aldi baterako langileak administrazio araubidean kontratatzeko, jarraituko zaio irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuan ezarritako araubide juridikoari. Dekretu horrek ezartzen ditu arauak Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak administrazio araubidean kontratatzeko. Horretarako, deialdi honetan aurreikusitako dei-sistema aplikatuko da, irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren aurka ez doan guztian (foru dekretu horrek Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak administrazio-araubidean kontratatzeko arauak ezartzen ditu).

9.4.2.3. Araubide orokorraren salbuespenak.

a) Oltza Zendeako Udalarekin aldi baterako lotua dagoenak indarreko kontratuari uko egiten ahal dio baldin kontratua hobetzeko bertze bat eskaintzen bazaio, betiere kontratatua dagoen eremu berekoa baldin bada, kasuan kasuko zerrendan badago eta kasu hau gertatzen bada:

—Kontratu labur bat izatea indarrean eta kontratu luze bat eskaintzen bazaio (kontratua laburtzat hartuko da baldin aurreikusitako iraupena gehienez 6 hilabetekoa bada, eta luzetzat hortik gorakoa bada).

b) Izangai bat jada lanpostu batean ari bada ordezte kontratu batekin, eta baldin kontratua bukatzen denetik hilabete bat iragan baino lehen sortzen bada lanpostu bera aldi baterako betetzeko premia, kontratua izangai berari eskainiko zaio, baldin dei egiten zaion unean baldintza hauek betetzen badira:

–Dei egiten den unean indarrean dagoen zerrenda batean egotea izangaia.

–Aurreko kontratuaren bukaeraren arrazoia ez izatea hari uko egin izana.

–Aurreko kontratua bukatzeko arrazoia ez izatea zerrendatik kanpo uzteko arrazoietako bat.

c) Izangai batek lanaldi partzialeko kontratua daukanean, premia bat sortzen bada eta lanpostu hori betetzen ahal badu, berari eskainiko zaio premia hori lanaldiaren %100 bete arte, baldin kontratazio berriaren ondorioz hartu behar dituen ordu guztiak bateragarriak badira ordura arte esleituta zeuzkanekin. Langile batek baino gehiagok baldin badute lanaldi partzialeko kontratua, dagokionari eskainiko zaio, zorrotz jarraikiz aldi baterako kontrataziorako indarrean den zerrendako hurrenkerari.

9.4.2.4. Kontratatzeko eskaintzari uko egitea.

Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrenda horretako azken tokira pasatuko da, frogatu ezean honako egoera hauetakoren batean dagoela, kasu horretan, hain zuzen, duen postuari eutsiko baitio:

–Lizentzia izatea amatasun, aitasun, adopzio edo harreragatik.

–Aldi baterako ezintasuna izatea.

–Lan-kontratu bat indarrean izatea.

–6 urte baino gutxiagoko alaba edo semea zaindu beharrean egotea. Arrazoi horrengatik kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta gutxienez hilabete iragan arte kontratuari uko egin zioten egunetik.

–Zaindu behar izatea bigarren gradura arteko odol edo ezkontza bidezko ahaide bat, adinarengatik, istripuarengatik, eritasunarengatik edo mendekotasunarengatik. Arrazoi horrengatik kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta gutxienez hilabete iragan arte kontratuari uko egin zioten egunetik.

–Norberaren ezkontza edota, uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, pareko egoeran suertatzea (Bikote egonkorrendako berdintasun juridikoari buruzko Legea), baldin eskainitako kontratuaren hasiera eguna badago bikotea eratu ondoko edo eratu aurreko hamabortz egun naturalen barnean.

Kasu horietan izangaia "ez deitzeko moduan" agertuko da aldi baterako kontratatzeke izangaien zerrendan, harik eta izangaiak berak "deitzeko moduan" agertzea eskatzen duen arte, alegatutako inguruabarra desagertu delako. "Deitzeko moduan" dagoela adierazten duen unean agiri bidez eta modu sinesgarrian frogatu beharko du kontratua eskaini zitzaion unean alegatu zuen egoera.

9.4.2.5. Zerrendako azken tokira joatea.

Zerrendako azken tokira pasatuko dira honelako kasuren batean suertatzen direnak:

a) Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egozten ahal zaion arrazoi batengatik.

b) Sinatutako kontratuari uko egitea, salbu 9.4.2.4 apartatuan ezarritako kasuetan.

9.4.2.6. Zerrendetatik baztertzea.

Honako hauek izanen dira arrazoiak izangaiak baztertzeko dei egin zaien zerrendatik:

a) Kontratua probaldian hutsaldu izana zuzendaritzak txosten arrazoitua eman ondoren.

b) Lanpostua bertan behera uztea bidezko arrazoirik izan gabe eta zuzendaritzari jakinarazi gabe.

c) Kontratua azkentzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa, kontratatutako langilea gauza ez izateagatik lanpostuko eginkizunak behar bezala betetzeko edo hartan egoki aritzeko, nabarmendu denean behar adinako errendimendurik ez duela lanpostuko eginkizunak eraginkortasunez egiteko, edo lanpostuaren edukian gertatutako aldaketak direla medio, betiere interesdunari entzunaldia eman ondoan eta Langileen Batzordeak edo langileen ordezkariak beren txostena egin ondoan.

Aldian behin, Alkatetzaren ebazpen baten bidez, artikulua honetan ezarritako arrazoiengatik baztertutako izangaiei zerrenda onetsiko da. Sinatu duten udalen web orrian eta/edo egoitza elektronikoa argitaratuko da ebazpen hori.

10.–Datuen babesa.

Izangaiei jarraian azaltzen dena jakinarazten zaie, bat etorri Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EE) Erregelamenduaren 13. artikuluaarekin. Erregelamendu horren bidez, pertsona fisikoen babesa arautu zen datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez eta indarrik gabe utzi zen 95/46/EE Zuzentaraua, (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, DBEO). Hona hemen:

Oltza Zendeako Udala da izangaiek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.

Datuen tratamenduaren helburua da langileak hautatzea eta deialdiko lanpostua betetzea.

Oinarri juridikoa honako hau da: DBEOren 6.1.b) artikulua (tratamendua beharrezkoa da kontratu bat gauzatzeko, interesduna kontratu horren parte bat denean, edo berak eskatuta, beharrezkoa izateagatik kontratu aurreko neurriak aplikatzeko), eta DBEOren 6.1.c) artikulua (tratamendua beharrezkoa da bete dadin tratamenduaren arduradunari aplikatzeko zaion legeko betebeharrak).

Datuak zein helburutarako bildu diren, halako helburua lortzeko beharrezkoa den denbora guztian gordeko dira, bai eta deialdiaren edo datuen tratamenduaren ondoriozko erantzukizun guztiak zehaztu ahal izateko ere. Artxiboen eta dokumentazioaren gaineko araudian ezarritakoa aplikatuko da (Nafarroako toki-erakundeek agiriak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak).

Datuak komunikatuko dira legeak aurreikusitako kasuetan (5/2015 Legegintzako Errege-Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duena), barnean dela gardentasunaren atarian argitaratzea, bat etorri Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 19.2.f) artikuluaarekin.

Titularrek eskubidea izanen dute datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko, kontra egiteko eta datuak eramateko, udal bulegoetara joz edo webgunearen bitartez. Azken horretan informazio gehiago dago eskura (<https://ayuntamientoolza.sedelectronica.es>).

Datuak Babesteko Ordezkariarekin ere jar daitezke harremanetan, dpd@ayuntamientoolza.com helbidean, eta erreklamazioa aurkez dezakete Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (aepd.es), uste badute datuen tratamendua ez datorrela bat indarrean den araudiarekin.

11.–Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, eta bere oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka, honako errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertzeako errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunari zuzendua, bat etorritz uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin, zeinaren bidez arautzen baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsua, zuzenean zuzendua Nafarroako Administrazio Auzitegiari, hilabeteko epean, errekurtsuaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, epaimahaia izendatu duen udal organo dei-egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Hori guztia, bat etorritz ezarrita dagoenarekin urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea) eta uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 333. artikuluan (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea).

I. ERANSKINA.–ESKABIDE EREDUA

Izena:, adinez
nagusia; nortasun agiri nazionala:; jaioteguna:(e)ko
.....aren(e)(a)n; jaioterria:(.....);
bizilekua, jakinarazpenak egiteko: (.....), karrika:
....., zenbakia:, solairua:, posta
kodea:, telefonoa:, posta
elektronikoa:

Zure aitzinera agertu eta azaltzen dut:

Eskatzen dudala onartua izatea Oltza Zendeako Udaleko zerbitzu anitzetako (lorezaintza) lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian.

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik.

Ez dudala indarrean dauden xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Badudala deialdiko hirugarren oinarrian adierazten den titulazioa.

Ez naizela baztertua izan ezein Administrazio Publikoren zerbitzutik eta ez nagoela eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua.

Baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala eskabideak aurkezteko epearen azken eguna baino lehen.

Euskara mailaren tituluari dagokionez, lehiaketaren baloraziorako (markatu proba egin nahi baldin bada):

☐ Euskarazko B1 mailako aukerako proba egin nahi dut.

Azaldutakoa dela eta,

Eskabide hau onar dezazula eskatzen dut eta, beraz, Oltza Zendeako Udalean zerbitzu anitzetako (lorezaintza) lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onar nazazula.

(Eskatzailearen sinadura)

II. ERANSKINA.–GAI-ZERREDA

1. 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa: toki-erakundeen antolaketa eta administrazioa; Nafarroako toki-erakundeen funtzionamenduaren araubidea. Herritarrendako informazioa eta haien parte-hartzea; toki-erakundeen ondasunak; kontratazioa; Nafarroako toki-erakundeen jarduketan prozedura eta araubide juridikoa, aurkaratzea eta kontrola.
2. 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa: prozeduran interesdun direnak; administrazio publikoen jardura; administrazio-egintzak. Administrazio errekurtsoak.
3. 40/2015 Legea, urriaren 1koa, hizpide duena Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa: abstentzioa eta errekusazioa; zehatzeko ahalaren printzipioak; administrazio publikoaren eta administrazio publikoen zerbitzura dauden agintari eta langileen erantzukizuna; sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa.
4. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua. Langile motak. Funtzionario izaera eskuratzea eta galtzea. Egoera administratiboak. Lanpostuak betetzea. Ordainsariak. Eskubideak eta betebeharrak. Diziplina araubidea.
5. Oltza Zendeako udalerriaren ezagutza orokorra. Kontzejuak. Kale-izendegia, kultura-ondarea eta historia.
6. Lorategien ureztatzea eta landaketa.–Landareak bereiztea: zuhaitzak, zuhaixkak eta landare bizikorak. Garapena eta loraldiak.
7. Inauste-lanak.
8. Arotzeria, igeltserotza, elektrizitatea, iturgintza eta berokuntza. Oinarrizko ezagupenak.
9. Mekanika: erabilera, mantentzea, konpontzea, makinen atalak eta piezak.
10. Laneko arriskuen prebentzioa, arau-esparrua: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. Eskubideak eta betebeharrak. Lehen laguntza. Modu seguruan erabiltzea metalezko hodi-aldamioak, eskailerak eta plataforma jasotzaileak. Obren seinaleak eta balizak.

Oharrak:

–Gai guztiak eskatuko dira deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoen legediaren arabera.

Gai-zerrendako erreferentziak, orientagarriak baino ez direnak, esteka honetan aurki ditzakezu:

<https://www.ayuntamientoolza.com/convocatoria-para-la-provision-por-concurso-oposicion-de-una-plaza-del-puesto-de-trabajo-de-servicios-multiples-jardineria/>

Iragarkiaren kodea: L2509477